



## San Anton plazatxua

Aspalditxokua da, bai, gaurko argazkixa. Ehun urte pasatxo eukiko dittu. Herriko bazter klasikuenetakua dogu **San Anton** edo **San Antue** izeneko hau; pintore eta fotografo askoren txoko kuttuna. Ez pentsau, horregatiok, aurreko gizaldittan kale-arte hau holakua zanik; neurri haundi batian, fan zan mendian hartu eben fotografixiak erakusten dauen tankeria. Aurretik San Anton eta **San Migel** kaliak (Kale Zaharra) alkarketan ziran kantoia besterik etzan. San Anton kaliari **Zumeltzegi** torrerako igoera malkartsu horren hasieran eguen ermitta batetik etorkixon izena, eta, garai batzuetan, oraingo tramuaz gaiñera gaur egun **Aita Madina** kalia dana be bereganaketan eben. San Migel kaliari, ostera, parrokixiak edo, gurago baldin bada, herriko santu patroiak emuten otzan deitturia, eta **Zazpibidetatik** (oraingo Txaketuenetik) bigarren kantueraiño-edo luzaketan zan, Kale Zaharraren erdixa inguru harrapaiten ebela.

San Anton Abateri eskiñittako ermittia, 1470. urtia ezkeru gutxienez, haitz ikaragarri baten gaiñian kokatuta eguen, **Aitzeko** etxia daguen inguruan hain zuzen. Etxe horretara igoteko dagozen harritzko eskillarak ermittarakuak ziran. Haitza, karearixa, herri-lanetarako ebalten zan sarrittan. Esate baterako, 1846-48 aldera Oñatittik Ormaiztegirako **erregebidia** zihero barriztau eta zabaldu zanian, San Antonetik harri asko atara ebein. Kamiño nagusixori kale-herrixan zihar bidekurtze inportante horretatik bertatik pasaiten zala aprobetxauaz, kalekantue horretan plazatxua moduketia erabagi zan. Horretarako, beheraiño etorren haitza asko jan zan eta plazueliari orain dakon zabaleria emun xakon **Mariano Jose Laskurain** arkitekto bergararren gidaritzapeian. Handik urte gutxira, Plaza Barriko arkuen oiñarrixak egin eta **pelotaleku** barrixa jasoteko, material asko karriau zan harrobi horretatik. Kanteralan honeittan ermittiaren hormak zartiauta geratu ziralako, 1861ian bota egin zan eta santuaran imajiña parrokixara eruan. Dana dala, larregiko atrebentzia ezpada, hipotesi txiki bat botako neke: ezkerretara agiri dan etxe-kasko kuadrau hori, bentana txiki bi dakona, ez ete da San Antonen ermittiaren arrastoren bat?

Fotografixan, geruagokua izan arren, harrobixa martxan zala igarten da; horma-sail arkodun horrein atzian eguen. Plazatuari hainbeste nortasun eransten xauen **itturri** bikaiña 1882xan ifiñi zan, hau da, argazkixa atara baiño lehentxuago. Itturri aurrekaldian Oñatik euki dauen lehenengo **gasolindegixa** jarri eben 1920ko hamarkadan **Xipriano Zufiriak**, gerra ostian **Illarramenditarrak** ebali ebeña, 1960 eta piku aldera Etxaluze ondora eruan zan arte. Azken urtiotan, San Anton plazueliak, ikututxo batzuekin, XIX. mendeko itxura klasiko-erromantikua berreskuratu dau. Horregatik-edo, deittuko xao adiskide bilbotar batek **Beethoven** plazatxua.

J. E.

Fotografixia *Gipuzkoa Postatxartelan* liburutik atarata dago eta argibide batzuk Iñaki Zumalderi zor xaugu.